

Josu Landa

Manifestu eguneratua

Joxe Azurmendi hil biharamunetan, *Berria* egunkarian esan nuen poeta gisa *Manifestu atzeratua*-n iradoki zuena praktikara eramaten saiatu zela bizitza osoan. Erdi boutade bezala interpreta liteke, edo injustizia handi bezala (determinismoa eta predestinazioa iraingarriak dirateke haren ibilbiderako). Baina metaforatzat ere har liteke, eta segidan doaz balizko metafora horren makulu herren batzuk. Ondoko hitzak oro Joxerenak berarenak dira –haizu bekit idazteko nagitasuna–: 27 urte zituela izkiriaturiko *Manifestu atzeratua* poemakoak (1968, *Olerti* III-IV) eta geroztik emandako zenbait elkarrizketatakoak.

Gure herriak ez dauka kondairarik./ Pobrea da. Ez dauka/ pirata
koxkor pare bat/ langile sufritu batzuk,/ muga zentzugabe asko,/ mila zorigaizto/ besterik.

«Gutxi gara eta txikiak gara; ba poztu gaitezen gure txikitasunean. Bere burua eginez parte hartzea munduaren ederrerako, ez handitasunerako. Besteak adina izan nahi eta besteak bezain inbezilak izan gara. Hori da gure tragedia» (Lorea Agirre, *Euskaldunon Egunkaria*, 1992-11-05).

Libre izan nahi dugu, besterik ez./ Hauxe baita gure engainu azkenekoa:/ libre izan nahia justifikatu behar dugula/ pentsarazi digute/ lehen kanpotik eta barrutik orain.

«Gure jauntxeria Madrilerara begira dago, beti hangoei nola gustu eman; Madrildik elikatzen da, Madrildik ikasten du eta Madrilen eduki nahi du bere eszenariotxoa komeria egiteko. Eta egiten du komeria, eta hau da bigarren konstantea, erridikulua egiten du» (Lorea Agirre, *Euskaldunon Egunkaria*, 1992-11-05).

Nik ez dut bakerik nahi/ ze bakea ez da libertatea/ (kasik ahantzia neukan/ zaharraren zaharrez).

«Demokrazia ezin da orain zikindu, baina bai Ipar Amerikan bai Frantziako Iraultzan ipini nahi baldin bazaio abiapuntua, demokraziaren

jaiotza kriminala da. Bere aita hilez hasi zen, Frantziako erregeari eta erreginari lepoa moztuz, eta gero dekretatu zuen autoritatearen kontra egotea kriminala dela» (Joxi Ubeda, *Euskaldunon Egunkaria*, 1997-11-26).

Eta nork askatuko digu herria?/ Zaharrak zahar dira/ gazteak gazteegi./ Libertatea baino nahiago dute/ ezkerra intelektualek./ Baina libertatea ez da eder,/ ez dago sindikatzerik,/ ez dago ezkerrean./ Etorkizunean dago.

«Sozialismo erreala negargarria izan da, baina demokrazia erreala ere negargarria izan da. Orain badakigu biak neurri berean direla. Eta munduan demokrazian ez daudenak ez daudela burutik sano edota kriminalak direla ematen du; hori fikzio bat da. Hala ere, demokrazia-ren bidetik joan beharra dagoela uste dut, baina ez oraingo eredutik. Modernitatearen eztabaidan, ni, gizonaren kontzeptuaren eztabaidara mugatu naiz eta berau jorratu dut» (Patxi Sarriegi, *Argia*, 1991-12-08).

Baina libertatea ez merezi,/ irabazi egin behar da./ Eta ezin irabaziko du ere, baldin eta/ gure filosofoek ikasten ez badute/ ez duela eguna erlojuak egiten.

«Ikusten dugunean zein ibilbide izan duen hainbat intelektualek, zeinak garai batean oso puntan egon ziren, progreak guztiak, baita euskaldunen bat ere... Oso kritikoa naiz horiekin, botereak irentsi egin baititu. Intelektual asko botereak zerbitzaritzat hartu ditu, baina ez bortxaz: diruz» (Gorka Erostarbe, *Berria*, 2012-11-06).

Hau guztia esan eta gero/ ez da faltako oraindik/ ez dugula maite aberria/ botako digunik.

«Ni bezalako batzuk, eta Txillardegi bera ere bai garai horretan, ‘atzerakoi nazkante batzuk’ bezala ikusita geunden».

«Nire borroka, alde batera, euskaltasun baten kontra da, eta bestaldera, euskaldunak ulertzeko modu espainol baten kontra».

«Gaur daukadan interpretazioa hori da. Igual bihar beste bat daukat» (Lorea Agirre, *Jakin.eus*, 2015, <https://jakin.eus/digitalizazioa/azurmendi/solasaldia>).